

Madeleine de Jauréguiberry: Oritzapen zonbait



Jean Louis Davant*

*M. de Jauréguiberry ze naren bidea gurutzatu dut bere ziki lan kasu hauetan: - 1970eko urria -
ren 25ean Mauleko udal txeko zaharrean, Euskaltzaindiak J.D.J. Sallaberry mauletan notario ze na -
ri, bere "Chants populaires du Pays Basque" liburuagatik, egin zion omenaldian parte hartu bai -
tzuen, han ikusi nuen anderea. - 1972ko uztailaren 5ean, Paueko Dei Gortean, Administrazioak
egin zidan auzi batean bere sostengua ekarri zidan Madalenak. - 1976eko abuztuaren 22an,
Euskaltzaindian ofizialki sartzeko mintzaldia egin bainuen Mauleko udal txeko ohian, ospakizuna
bere presentziaz ohoratu zuen. - 1977ko urriaren 22an, haren ehorzketa meza bukatzean, haritz
ori bat etorri zitzaion kutxa gainean pausatzen. Sinbolo hunkigarria!*

Giltz-Hitzak: Abertzaleen laguna. Zuberotar euskalzalea. Ohoetzko euskaltzaina. Kristaia.

*Me he cruzado en el camino de M. de Jauréguiberry en cuatro ocasiones de trabajo princi -
palmente. El 25 de octubre de 1970 en el ayuntamiento viejo de Mauléon, tomó parte en el
homenaje que Euskaltzaindia ofreció al que fuera notario mauletarra J.D.J. Sallaberry, por su
libro "Chants populaires du Pays Basque" y fue allí donde vi a la señora Jauréguiberry. El 5 de
julio de 1972, en la Corte de Apelación de Pau, en el juicio que contra mí entabló la
Administración, Madalena me aportó su apoyo. El 22 de agosto de 1976, día en que pronuncié
el discurso de entrada en Euskaltzaindia en lo que era el ayuntamiento de Mauléon, honró el acto
con su presencia. El 22 de octubre de 1977, al acabar la misa de su entierro, una rama de roble
se posó en el féretro. ¡Símbolo conmovedor!*

*Palabras Clave: Amiga de los nacionalistas. Euskalzale suletina. Miembro de honor de
Euskaltzaindia. Cristiana.*

*J'ai rencontré M. de Jauréguiberry quatre fois, principalement à l'occasion de travail. Le 25
octobre 1970, à la vieille mairie de Mauléon, elle prit part à l'hommage qu'Euskaltzaindia rendit
à celui qui fut notaire de Mauléon J.D.J. Sallaberry, pour son livre "Chants populaires du Pays
Basque", et c'est là que j'ai vu Madame Jauréguiberry. Le 5 juillet 1972, à la Cour d'Appel de Pau,
lors du procès que m'avait intenté l'Administration, Madalena m'apporta son soutien. Le 22 août
1976, jour où j'ai prononcé mon discours d'entrée à Euskaltzaindia, à ce qui était la mairie de
Mauléon, elle honora la cérémonie de sa présence. Le 22 octobre 1977, à la fin de la messe de
son enterrement, une branche de chêne fut déposée sur son cercueil. Symbole émouvant!*

*Mots clés: Amie des nationalistes. Euskalzale suletine. Membre d'honneur d'Euskaltzain -
dia. Chrétienne.*

* Aizagerria. F64130 Ürrüstoi - Arrast

J'ai eu l'honneur de connaître Madeleine de Jauréguiberry et j'évoque rapidement quatre souvenirs qui m'ont marqué à son sujet.

1. Le dimanche 25 octobre 1970, à l'ancienne mairie de Mauléon, l'Académie de la Langue Basque rendait hommage au mauléonnais Salaberry qui publia un siècle plus tôt les «Chants populaires du Pays Basque». A la fin de la réunion, Madeleine de Jauréguiberry reçut une médaille de l'*Eskualtzale en Biltzarra* pour son travail en faveur de la langue basque. Puis monsieur de Monzon rendit hommage à l'action de Madeleine et de ses frères en faveur des réfugiés basques du sud lors de la guerre de 36 à 39.

2. Le 5 juillet 1972, elle vint me soutenir à la Cour d'Appel de Pau dans un procès qui m'opposait à l'Administration à la suite d'une manifestation en faveur des réfugiés politiques basques, manifestation un peu mouvementée sans être violente.

3. Le dimanche 22 août 1976, lors de mon entrée officielle à l'Académie de la Langue Basque, elle m'honore de sa présence aux discours dans l'ancienne mairie de Mauleón, puis au repas qui réunit parents, amis et académiciens. Elle était membre de l'Académie, d'abord comme correspondante, puis académicienne d'honneur.

4. Le samedi 22 octobre 1977, à la fin de la messe de ses obsèques, juste avant la levée du corps, une feuille de chêne apparut le long du petit fronton de Sibas et vint se poser doucement sur le cercueil. C'est un symbole très fort et merveilleux qui nous a beaucoup marqués, mon épouse, nos deux filles et moi-même.

Cette feuille de chêne providentielle nous dit beaucoup sur Madeleine de Jauréguiberry, elle résume pour nous sa vie, son œuvre et son espérance: l'espérance basque, bien sûr, mais aussi l'espérance chrétienne qui habitait Madeleine de Jauréguiberry, sans oublier son attachement aux valeurs démocratiques.

ORITZAPEN ZONBAIT

Madeleine de Jauréguiberry andere zenaren ezagützeko zorihona uken düt, ohore betzait, eta hartaz etxeki dütüdan lau oritzapen handienak aipatüko deitzüet.

1. Lehena düala laster 30 urte agitü zen, 70-3ko ürrietaren 25-ean igante goiz hartan Euskaltzaindia (Euskal Academia) Maulen bildü zen. Heriko etxean, orai üdaletxe ohia den hartan. Euskaltzainburu izentatü berria zen aita Villasante, aita Manuel Lekuona-ren ondoko, eta biak mahainbürian zau-den ordüko auzapezarekin, hura beitzen Jean-Pierre Champo zena.

Bilküraren geia zen «Chants populaires du Pays Basque» libürüa, mente bat lehen agertü zena, eta omenaldi bat üken züan hura hontü züanak, Salaberry mauletar notari zenak. Ez niz jünta horren xehetarzünetan sartüren, egünko süjeta M. de Jauréguiberry zena beitätü, eta haren üngürüan baratüko niz.

Gorazarreak üken zütüan hark ere bilküraren ürrentzean bi jaunen ganik. Bata Telesforo de Monzon-ena. Honek mintzaldi sütsü batez eskerrak eman zeitön Madalenari, 36-eko gerla denboran bere anaiekin hegoalde-tiko ihes-larier ekari züan lagungoaz. Beste gorazarrea, Michel Labéguerie-rena: Eskualzaleen Biltzarako lehendakaria lehentxago mintzatü zen, anderea laüdatzen züalarik eüskararen alde egin lanaz. Eta omenaldiaren azpimarratzeko, medaila bat eman zeion Eskualzaleen Biltzararen izenean.

Gaineala oritarazten düe eüskaltzain ürgazlea zela M. de Jauréguiberry, hots lagüntzalea: ohore bat beno haboro, zerbütü bat da hori, ürgazleak be-tira Euskaltzain osoen aholküleri zuzenak, eta haien artean haütatzen be-tira Euskaltzain berriak.

Gero 1975-ean ohorezko euskaltzain izentatürük izan zen, eta horrek erran nahi du Euskaltzain oso izatea merexi zükeala, bena lekürük ez agitüz hütsik aski ordüz, hortako adina gaintitürük züala.

2. Bigerren aldian 1972-ko üttailaren bosta zen, Paueko Dei Kortean, eta ordüan ni nintzan süjeta, bena malerusa, berehala entelegatüko düzüen be-zala. Aitzineko barantailan Baionako karrikan ibilaldi bat egin günüan hegoalde-tiko ihes-larieren alde, zonbait Eüskal Heritik ohiltzen beitzütüen ordüköz, nahiz ez zen orano sortürük «Espainiako demokrazia gaztea».

Pusakan eraunsi günüan amiñi bat poliziako kargüdün zibil batekin eta ondorioz auzi lüzeak üken nütüan administratziönearekin, bekatü mortalez aküsaturük, nahiz ez nüan egin benialik baizik. Arren Paueko Dei Kortean M. de Jauréguiberry han zegoen, gazte andana baten artean. Jelkitzean besape-tik hartü nüdüan, eta bejarmiala erran zeitan: «Ontsa kontent nüzü heben iza-teaz! Plazer egin zaitala, güti erraitea da lauetan hogeita zortzi urteak bazü-tüan ordüköz...

3. Hirugerrenean ere süjeta nintzan, bena ohorezki: 1976-eko agorilaren 22-a zen, igantea, eta Euskaltzaindian sartzan nintzan ofizialki. Maulen zen, heriko etxe ohian, Félix Supervielle zena zelarük auzapez. Mintzaldiak ürren-türük, jenteak jaitsi ziren eta bazkariteko abitü ostatüalat. Azkena jelki nintzan eta hor ediren nüan, arrabotü bazterrean, andere de Jauréguiberry, bilküran zena hura ere, bizkaitar gazte andana batekin elestan.

Solazean sartü nintzan ni ere, oritzen niz eüskara eskolan nola sararaz gününala geia, eta holaxe berant apür bat bildü günüan. Arren biak abiatü ginen azkenean Anso-eneari бүrüz; 92 urteak bazütüan, ürratsa baraxtürük züan, bena ibiltea bazüan orano eijerki. Eta besoz-beso joan ginen.

Ostatüan sartü ginelarik, oro mahainean jaririk zauden, eta harrigariko eskü zarta tzarraka egin zeiküen adiskide, euskaltzain eta familiakoek: egunduko txalo zaparrada, hegoaldean erraiten den bezala. Oritzapen handia da enetako.

4. Laugerrena, azkena, ederrena, hunkigarriena, dolüaren gainetik: 1977-ko ürieta ren 22-a zen, neskenegün goiza, ehortzeta meza ürruntzean. Denbora erdi ebitsü bat (erdi euritsü bat) zen. Lehen ostoak erorten hasirik. Meza hunkigaria Zibozeke pelota plaza xaharrean. Arrabotü ttipiaren hoine-tan dago hil hütxa.

Korpitzaren altxatzeko aldia noiz nahi hor date. Eta hona non haritz osto bat agertzen den arrabotüaren behera, eta emeki-emeki txori bat bezla pausatzen hil hütxaren gainean...

Ez düüt ametsik egin, emazteak eta bi alabek ikusi düe nik bezala, eta oritzapen horrek zinez hunki gütü lauak.

Gure arbasoek erranen züen miraküillü bat agitü zela, eta nork daki? Isteria eder bat asmatüko zëun, eta kantore bat hontüko, bena hori orano egi-ten ahal dena da.

Haritz osto horrek dena erraiten dü: Madalenaren bizitzea, haren lana, haren eta beste zonbeiten esperantxa eüskaldüngoaren geran, baita betiereko bizian, eüskaldün izateaz gain fededün kiristia beitzen, eta ezpiritü zabal-a.